



June Fernández



KAZETARIA

Irribarreak

TANIA SÁNCHEZ Izquierda Unidako (IU) kidea bere alderdi politikoa eta Podemosen arteko harremanaren inguruko galdera bati erantzuten ari zen teleaio batean. Eduardo Inda eskumako kazetariak hauxe galdetu zion: “Baina zu zergatik zaude beti hain haserre?”. Sánchezek segituan erantzun zion: “Badakit kostatzen zaizula gai serioen inguruan seriotasunez hitz egiteko gai diren emakumeak badaudela ulertzea, baina ohitzen joan behar duzu, XXI. mendean gaudelako eta emakumeok ez dugulako irribarre egiten zure zerbitzura jartzeko edota zure gusturako”. Hurrengo 48 orduetan 27.600 pertsonen partekatu zuten bideo hori Facebooken bidez.

Dudarik gabe politikari azkarra eta komunikatzaile ona dugu Tania Sánchez. Gaztea eta ederra ere bada, zaila da horretan ez erreparatzea (besteak beste, halako teleaioetan emakumezko eta gizonezko gonbidatuen edertasunaren arteko kon-

Halakoak maiz gertatzen dira politikan. Gogoratu Europako hauteskundeetarako konpainian PPko hautagaiak, Miguel Arias Cañetek, Elena Valenciano PSOEko hautagaiarekin telebistan eztabaidatu ondoren, esandakoa: “Zaila da emakume batekin eztabaidatzea: nagusitasun intelektuala adierazten baduzu edo estutzen baduzu, matxista deituko dizute”.

Egunkari batean erreportaje bat idatzituen emakume politikariek bizi duten matxismoari buruz. Valencianok esan zidan gure gizarteko hiru botere esparru nagusien artean —erlijiosoa, ekonomikoa eta politikoa— politikoa ikusi dutela gizonek euren hegemonia mehatxatuen. Testuinguru horretan kokatu behar ditugu matxisten astakeria horiek, eta bataila galduta dutelako amorratuak daudela ospatu. Eurei galdetu behar genieke zergatik dauden emakume azkarrekin haserre.

Baina “zergatik zaude beti haserre?” komentario horrek oroitzapen ugari ere ekarri zizkidan. Behin gauez etxera bakarrik bueltatzen ari nintzela, gizonezko kale-garbitzaile batek esan zidan: “Irribarre egin, neska, politagoa zaude”. Sare sozialetan egoera hori kontatu eta gizon askok esajeratua izatea leporatu zidaten, kale-garbitzaileak jatorra zirudiela eta horrek sexismoarekin loturarik ez zuela. Jendaurreko lanpostuetan askotan gertatu zait gizon ezezagun bat hurbiltzea “ez izan hain serioa, irribarre egin” esateko. Gizonezko lankideek ez zuten inoiz jaso irribarre iraunkorrarekin lan egiteko exijentziarik.

Pierre Bordieu soziologoak ondo azaltzen du: “Gizarte patriarkalean emakumeek objektu sinbolikoaren estatusa bete behar dute, besteen begirada etengabe sentituz. Horren ondorioa segurtasun falta eta beti erakargarriak, lirainak eta erabilgarriak izateko grina dago”. XXI. mendean, baina, gero eta gehiago gara, komunikabideetan, politikan zein kalean, agindu horren kontra ozen egiten dugun emakumeak, labainkada matxistak berdintasunaren aldeko bumeran bihurtuz. ■



Jendaurreko lanpostuetan askotan gertatu zait gizon ezezagun bat hurbiltzea “ez izan hain serioa, irribarre egin” esateko. Gizonezko lankideek ez zuten inoiz jaso irribarre iraunkorrarekin lan egiteko exijentziarik

trastea nabaria eta susmagarria baita). XXI. mendean, gizon matxistei asko kostatzen zaie emakume gazte eta lirainekiko errespetua sentitzea. Emakume adimentsu batekin eztabaidatu behar dutenean, halako esaldiak maiz erabiltzen dituzte emakumea “bere lekuan” jartzeko asmoarekin. Nolabait Indak esan nahi ziona hauxe zen: “Ez ahaztu emakume polit bat besterik ez zarela eta zure papera telebista apaintzea dela”. Emakumeen argitasunak matxistei zirkuitulaburra eragiten diete eta erreakzioa, misoginia zaharkitua erabiliz, emakumea neutralizatzen saiatzea da. Estrategia kaxkarra, alegia, emakume azkarra, indargabe geratu orde, matxistaren zekenkeria patetiko agerian uzteko gai baita.